ASTEKARIA - 2008ko martxoaren 14an - XII. urtea - Usurbil, 316. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua !!



Asteburu honetan hasiko da Usurbilgo Pilota Txapelketa



Jordi Colomer, San Markosko aholkularia

## “Atez ateko zabor bilketa Europa erdian egiten da”


USURBILGO
HAUR ESKOLA
0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO
06/07/08. urtean jaio eta jaioko diren haurrak
• NON: Kalezarren • ORDUTEGIA: 7.30 -18.30
• EGUTEGIA: astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila
• INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA:
martxoaren 3tik apirilaren 30era, 9.00etik 13.30era
OSASUN HEZIKETA
ELIKADURA EKOLOGIKOA
JANTOKIA
ZERBITZU PEDAGOGIKOA GURASO ESKOLA
EKIMEN BEREZIAK
943 374 061


Udaberria Urtinean
Zatoz
eta jantzi kolorez
zure etxe, balkoi
zein lorategia
Urtinea Lorategia

## Albistea iruditan !!

# 1.000 lagunetik gora Lilatoian

*Hau ezin da gelditu.* Arantxa Gurmendi Donostiako Lilatoia antolatzen duen lan taldeko kidearen hitzak dira. Lasterketak 19 urte bete ditu aurten, eta inoizko partehartze handiena izan du: 1.000 lasterkarien muga gainditu du (gogoan izan 200 korrikalari atera zirela lehen urtean). Azken urteotan bezalaxe, asko izan ziren Donostian korrika aritu ziren usurbildarrak. Irudian dira horietako batzuk.

Aiako Nerea Amilibiak irabazi zuen lilatoia (18:37). Amilibiaren atzetik, Olatz Gabilondo azkoitiarra eta Olatz Arzubialde donostiarra sailkatu ziren. Baina, akaso, hori da gutxienekoa Lilatoian.




USURBILDAR ASKO BILDU ZIREN AURTENGO LILATOIAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK — 5. OR.
ATEZ ATEKO ZABOR BILKETA — 6. OR.
USURBILGO PILOTA TXAPELKETA — 10. OR.
ASTE SANTUAN, ALEMANIARA... — 12. OR.
VERDINI DANTZA TALDEA SUTEGIN — 13. OR.
PIERRA MENTA LASTERKETA — 14. OR.
DOLO ERRASTI, FINALEAN BIGARREN — 15. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAZ

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



NEREA ZINKUNEGI

# Bitartean, okerrago zuentzat!

Larunbata da, eguerdi aldea, eta jende gutxiago egongo den esperantzarekin merkatal zentro erraldoira (h)urbildu naiz etsita, arropa erosi beharrean naiz eta gorroto dut egin beharra.

Sartu naiz denda batean, eta bestean, eta beste batean, eta berdinak dira, han eta hemen, pertxatatik zintzilik dauden jantzien koloreak, formak, kokaguneak eta kamarerak, barkatu, dendariak. Izan ere, txunba-txunba musika honek nahastu egiten nau.

“Holaaaaa, ¿te ayudo?” puskatu du nire noraeza ahots mizto luze batek. Salto txiki bat emanez arrapalada batetan aurpegira begiratu diot, ikuspuntu kontrapikatuan. Rodilloarekin makillatua du aurpegia, betile inposibleak, nakarrezko ezpainak. “Ez, lasai” erantzun diot irrifartsu, esku artean dudana bere lekuan utzi eta arropa artean galdu naiz berriro haruntzaxeago.

Armairurako hautagaiak izan daitezkeen galtza parea daukat begi aurrean, eskutan hartu eta besoak altxatuz ordaindu orduko zakarretarako liratekeen oihal zatiak irudikatu ditut buruan, galtza-barrenak sobran beti. Batzuontzat tallarik ez baitago merkatu xelebre honetan.

“Hau gizonezkoen sekzioa da” esanez puskatu du berriro nire hausnarra aurreko kamarera berak, barkatu, dendariak. “Eta?!” erantzun diot zakar betile inposibleei begira. Moztu egin da, buelta erdia eman eta stand kaotiko bat txukuntzen hasi da.

Neronek ere, instintoz edo, buelta eman dut. Bikote gazte batekin egin du topo nire begiradak; hogeita gutxi ditu mutilak, neska ez da urruti ibiliko. Esku artean zabaldurik du marradun alkandora eta mutilari sorbaldatik sorbaldara jarri dio aproposa ote duen edo ez jakiteko. Mutilak ez du apenas iritzirik azaltzen aukeraketaren aurrean.

Amorrazita, hartutako lekuan utzi ditut galtzak, urteak pasa diren arren ezer gutxi aldatu denaren sentsazioak gainditu nau eta etxera abiatu naiz pentsatuz zenbatetan esan ote duen mutil horrek berak bere heziketa pasibomatxistaren errua bere amak duela. Ya os bale!

Nahi duzuenean, gizonak, lortuko dugu berdintasuna, bitartean okerrago zuentzat!

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - **Nerea Zinkunegi** - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

## Ika-mika

# Donostiak Zubieta zertarako?

Aurki beteko dira berrehun urte, Donostia errautsetatik berregiteko asmoz, bertako jauntxoak Zubietako baserri batean bildu zirenekoa. Beldur gara bost urte barru donostiar jauntxoen zoriona zubietarron zorigaitza ez ote den izango. Zubietako herritarrok maite dugu Zubieta; nork ez du maite bere herria? Donostiak ere maite omen du Zubieta (nahiz, gehiegitan, non den ere ez dakien). Zertarako, ordea?

Iazko maiatzean osatu zen Zubietako Herri Batzarra. Herriak dituen erronka ugarietan latzena, Zubietaren benetako nortasuna defendatzea. Egun Gipuzkoan herri gutxik dute gureak bezain azpiegituragabezia larria: estolderiarik ez, errepide duinik ez, garraio publiko lotsagarria. Ez gara limosna eskatzen ari, inondik ere: zubietarrok hamaika motatako zergen bidez emaniko diruaren zor zaigun partea justiziaz gestiona dadin eskatzea baizik ez da hori.

Donostia beharrak asetzen hasi da, bai, baina ez gureak, hemendik kanpoko beste inoren interes urbanistiko eta ekonomikoenak baizik. Gure lurretan kultura eta ingurugiroa suspertzeko proiektua gauzatu nahi du Donostiako Udalak:

- Gipuzkoa osoko zaborra jasoko duen erraustegia (lege nagusia bera ere betetzen ez duena),
- 1008 pertsona preso edukitzeko kartzelatzarra (horien %75, espainiar Estatutik ekarriko dituzte, gizabidez kontra-kontrako dispertsio kriminalak irauten duen bitartean),
- Loiolan militar profesional espainiarrek (ama aberria defendatzearren, armak eskuan dabiltzan bakezale esloveniar, perutar, errumaniarrak) dauzkaten kuartelak,
- 160.000 m2ko parte industriala, aspektu kultural horiek orekatzeko (edo erraustegiaren hondakinak kudeatzeko akaso),
- 1.100 etxebizitza (eskerrik asko guregatik kezkatzearren, baina oraingoz 500 biztanle gara herrian!)...

Orain hamabost urte Donostiak eta Zubietak lankidetza hitzarmena sinatu zuten eta zortzi hilabete besterik ez dira pasa hango Alkateak zubietarrok entzungo gintuela hitz eman zigunetik. Betikoa: hitz eman... hitza jan!

Zubietak, egiari zor, bere lurrak eskaini zituen zaborraren gestio egokia bertan egiteko, baita espetxe politika egoki baten zentro berezia jartzeko ere. Baina egungo politikariek herritarrei entzungor eginez… Txin-txin, diruaren hotsa…

Zubietako Herri Batzarrak azaldu nahi du erraustegia, kartzelatzarra eta antzeko makro-proiektuak eraiki nahi dituzten jauntxoak errazkeriatan dabiltzala eta, guztiok bat eginik, giza legea garaile izango dela, feniziar horien diru-interesen aurrean. Beren interes ekonomikoak betetzeko bakar-bakarrik Zubieta erabili nahi duten horiei herritar baten esana gogoraraziko diegu: "Zubieta txikia da, txiki izaten jarraitu nahi du, baina ez gaitzatela txikitu." Zuek, behintzat, ez gaituzue txikituko.

**Eñaut Zuriarrain, Zubietako alkate**

# PSE-EE izan zen alderdi bozkatuena, abstentzioa %58ra iritsi zen hauteskundeetan

**PSE-EEk bildu zuen botorik gehien Usurbilen. Goruntz egin duen alderdi bakarra izan zen. Gainontzeko alderdiek duela lau urte baino boto gutxiago bildu zituzten. Abstentzioa %58 izan zen, duela lau urtekoaren bikoitza. Ezker Abertzalearen deiari erantzunez, neurri handi batean.**

Espainiako Kongresu eta Senaturako hauteskundeak izan ziren igandean eta Usurbilen PSE-EE alderdia izan zen botorik gehien lortu zuena, 629 botorekin. Beste herri askotan gertatu zen bezala, botoetan gora egin zuen alderdi bakarra PSE-EE izan zen. Gainerako alderdi guztiek boto galera izan zuten.

Boto kopuruan, EAJ-PNV alderdia izan zen bigarren, 474 botorekin. Hirugarren tokian, EA alderdia geratu zen 242 botorekin; Aralarrek 237 boto lortu zituen; EB-IUk 88; eta zuriak 43 izan ziren (normalean baino gehiago).

Ezker Abertzaleak "abstentzio aktiborako" deia egin zuen eta Usurbilen erantzun handia izan zuen. %58,07koa izan zen abstentzioa, duela lau urteko kopuruaren bikoitza.

### Gipuzkoako ordezkaritza Madrilgo Gorteetan




| 2008 | |
|---|---|
| PSE-EE | 629 |
| EAJ-PNV | 474 |
| EA | 242 |
| ARALAR | 237 |
| PP | 177 |
| IU | 88 |
| Besteak | 40 |
| Zuriak | 43 (%2,21) |
| Errolda | 4.644 |
| Abstentzioa | 2.697 (%58,07) |
| Baliogabeak | 17 (%0,87) |

| 2004 | |
|---|---|
| PSE-EE | 523 |
| EAJ-PNV | 836 |
| EA | 462 |
| ARALAR-Zutik | 294 |
| PP | 198 |
| IU | 153 |
| Besteak | 23 |
| Zuriak | 31 (%1,23) |
| Errolda | 4.598 |
| Abstentzioa | 1.338 (%29,1) |
| Baliogabeak | 740 (%22,7) |

Ezker Abertzaleak abstentzioaren aldeko bozka eskatu zuen. 2004an, baliogabetuak izan ziren Batasunaren bozkak.

## Gorteetarako botoen bilakaera Usurbilen

**1996**

| Alderdia | Botoak |
|---|---|
| HB | 1.109 |
| PSE-EE/PSOE | 570 |
| EAJ-PNV | 550 |
| EA | 460 |
| PP | 206 |
| IU | 124 |
| Besteak | 13 |
| Abstentzioa | %28,31 |
| Baliogabeak | 24 |

**2000**

| Alderdia | Botoak |
|---|---|
| EAJ-PNV | 509 |
| PSE-EE/PSOE | 363 |
| EA | 250 |
| PP | 242 |
| IU | 52 |
| Besteak | 30 |
| Abstentzioa | %66,02 |
| Baliogabeak | 15 |

*2000. urtean, EH alderdiak abstentzioaren aldeko botoa eskatu zuen.*

**2004**

| Alderdia | Botoak |
|---|---|
| EAJ-PNV | 836 |
| BATASUNA* | 722 |
| PSE-EE/PSOE | 523 |
| EA | 462 |
| ARALAR-Zutik | 294 |
| PP | 198 |
| IU | 153 |
| Besteak | 23 |
| Abstentzioa | %29,13 |
| Baliogabeak | 18 |

** Alderdien Legearen ondorioz, baliogabetzat hartu ziren Batasunaren aldeko botoak.*






## Jordi Colomer, San Markos Mankomunitateko aholkularia

# "Gaikako bilketa %80ra igo daiteke, posible da"

**Herrialde Katalanetako hainbat herritan hondakinak bildu eta tratatzeko martxan jarri dituzten bestelako esperientziak, bilketarako atez ateko sistema eta tratamendu mailan konpostajea, gertutik ezagutzen ditu Jordi Colomerrek. San Markos Mankomunitateko aholkularia da bera. Azken asteotan Usurbilen izan da, azterketa lanak egiten. Gai honetan aurrerapausoak emateko, bere ustez, giltzarrietako bi honakoak dira: "Hondakinen ziklo osoa sorlekura gerturatzea, eta materia organikoa arazoa baino baliabide gisa ikustea".**

**NOAUA! Azken asteetan Usurbil aztertzen aritu zarete?**

**Jordi Colomer.** Bai. Usurbilgo gaikako bilketaren egungo egoera aztertzen ari gara; birziklapen tasa zenbatekoa den edota zenbatekoak diren tratamendu gastuak eta bilketa zerbitzu bakoitza. Egungo egoeraren argazkia egiten gabiltza. Hondakinak berreskuratzeko dauden aukerak aztertzen ari gara.

**JORDI COLOMER**

"Materia organikoa bereizita biltzeak, konpost ona egin eta gainerako zatien bilketa emaitzak ontzea dakar"

Hor ikusi duguna da egun zer den biltzen dena eta biltzen den horren barruan, zer dagoen hondakin mota ezberdinak nahasten diren zabor ontzian. Denetariko hondakinak nahasten diren zabor ontzi horretan, berreskuratu eta birziklatu daitekeen material asko dagoela ikusi dugu.

**N. Gehienbat, materia organikoa?**

**J. C.** Birziklagarria den zatirik garrantzitsuena, materia organikoa, ez da biltzen. Ikuspegi arazo bat dago egungo bilketa sisteman; erreusa biltzeko zerbitzu asko eskaintzen da, egunero biltzen baita. Baina gutxien sortzen den hondakin zatia dugu erreusa. Gaikakoaren bilketa ordea, astean behin edota ontziak bete ahala egiten da. Materia organikoa berriz, ez da biltzen. Gehienbat erreusa biltzen ahalegindu beharrean, materia organikoa biltzera bideratu beharko litzateke ahalegin hori eta gutxitu, aldiz, erreusaren bilketa.



HONDAKINAK BERRESKURATZEKO DAUDEN AUKERAK AZTERTZEN ARI DIRA JORDI COLOMER ETA BERE LAN TALDEA.

**N. Orain egiten denaren justu alderantzizkoa?**

**J. C.** Noski. Hondakinetan ia guztia berreskura daiteke baina justu aurkakoa egiten ari gara. Erreusa biltzen zentratzen bazara, geroz eta erreus gehiago bilduko duzu. Eta gaikako bilketa egungo mailan geratuko litzateke. Materia organikoa bereizita biltzeak, konpost oso ona egin eta gainerako zatien bilketa emaitzak ontzea dakar.

**N. Eta ingurumenean onerako eragitea?**

**J. C.** Ingurumen mailan, gurutzada handi baten aurrean gaude. Petrolioa geroz eta garestiago dagoenez, energia iturri alternatiboak bilatzen ari dira. Batzuek horretarako hondakinen aldeko apustua egiten dute; horiek erretzearen alde daude. Baina kasu horretan ez da kontuan hartzen, materiala deuseztatuta, materia berria sortu behar dela. Erreko ez balira, berrerabiltzeko aukera egongo litzateke. Erraustegiek ez dute energia berreskuratzen, hori baino askoz handiagoa baita erretakoa ordezkatzeko behar den energia kopurua. Bestalde, negutegi efektuko gasak eragiten ditu. Birziklatze sistemarekin ordea gas horiek sortzea murriztu edota saihestu daitezke eta aldaketa klimatikoari aurre egin.

**N. Hondakinen bestelako kudeaketak martxan jarri diren lekuetan, herri bakoitzeko ezaugarriak kontuan hartu dira. Kasu honetan, Usurbili buruz zer esan daiteke?**

**J. C.** Gaur egun hondakinen bilketaren bidea zein den ikusi dugu. Ibilbide hori atez ateko bilketa sistemara egokitu eta denbora neurtu dugu. Orain, ibilbidea, geralekuen arabera egingo dugu. Bilketa sistema aldatzeak, lehenagoko ibilbidea aldatzea ekarriko du. Ez baikara ontzien atzetik joango. Etxe atari guztietatik pasa beharko dugu.

# Atez ateko sistemarekin, etxe atarian utzi beharko ditugu hondakinak

**NOAUA! Ibilbidea luzatuko denez, beste lekuetan bezala, kamioi eta langile gehiagok aritu beharko lukete lanean?**

**Jordi Colomer.** Egungo ibilbidearekin alderatuta, bilketan xahutzen den denbora ez da askoz handiagoa. Aldiz, sakabanatuta dauden baserrien kasua hor dago. Haientzat ere konponbidea bilatu beharko da; bilketa puntu batzuk jartzea adibidez, baserri guztietara ez joateagatik. Edota leku horietan autokonpostajea bultzatzea. Hartara, etxebizitza horietan materia organikoa bildu beharrik ez. Hori guztia, momentu honetan, azterketa fasean dago. Gaiari buruzko informazioa eskainiko da eta herritarrei zuzendutako partehartze prozesu bat ere martxan jarriko da.

**N. Bilketa lanetan gastuak handitu daitezke, baina tratamenduari dagozkionak jaitsiko dira?**

**J. C.** Bai. Sistema honek bere bideragarritasuna du ingurumen mailan, baita ekonomikoki ere.

> **JORDI COLOMER**
>
> "Usurbilen sortzen diren hondakinei ahalik eta gehien egokitzen den konpost planta jartzea da asmoa"

**N. Hondakinak tratatzeko konpostatzearen aldeko apustua egingo da. Baina zer nolako formula baliatuta gauzatuko da?**

**J. C.** Hondakinekin dagoen arazo geroz eta garrantzitsuagoetako bat, horien garraioa da. Autokonpostajea ahal bezain beste bultzatuko da, egin dezaketen herritar guztien artean. Zerbitzu hori martxan jarrita, materia organiko tona asko garraiatu beharrik ez legoke. Hartara, konpost plantara eta gero handik, lore dendatara garraiatzea aurrezten da. Bestalde, konpost planta txikien planteamendua legoke. Horretarako, garraio gastuak eta planta horiek jartzeak zenbateko inbertsioa behar den kontuan hartu behar dira. Aztertzen ari gara. Usurbilen sortzen diren hondakinei ahalik eta gehien egokitzen den planta jartzea da asmoa. Hondakinen ziklo osoa, hondakinak sortzen diren lekura gerturatzea, eta herritarrek materia organikoa arazoa baino baliabide gisa ikusaraztea.

**N. Martxan jarri diren antzeko beste esperientzien lekuko izan zara. Zer egin dezakete herritarrek, datozen aldaketetara ohitzen hasteko?**

**J. C.** Prozesu bat da, baina egun argi bat du; ontziak kentzen diren eguna. Hortik aurrera, etxetik gertu dugun ontzietara joateari utzi eta etxe atarian utzi beharko ditugu hondakinak. Dirudiena baino askoz errazagoa da. Azkenean, zenbait gairen bilketa egiten ari gara. Sistemaz aldatutakoan bilduko den gai berri bakarra, materia organikoa izango da. Bereizteko oso erraza den hondakin zatia da. Garrantzitsuena ez da bereiztea, ez nahastea baizik. Organikoa sortzen dugunean, organikoa soilik sortzen dugu, garbia. Materia organikoarentzat soilik erabiliko dugun ontzira botatzea da, egin behar dugun gauza bakarra. Beste hainbeste gertatzen da gainerako gaiekin. Ez da larritu behar. Instrukzio liburuak banatuko dira, tailerrak antolatu…

**N. Une honetan zertan dira prestakizun lanak?**

**J. C.** Aztertzen gabiltza. Garrantzitsuena, helburua jarrita dagoela. Bide horretan lanean gabiltzala. Hobe azkarregi ez joatea. Aldaketa eguna iristerako herritarrek prozesu osoa ezagutu, bertan parte hartu eta ziur egonda hasi behar dute. Hartara, bilketa sistema berriarekin denak gustura egon gaitezen. Helburu nagusia, gogoratu, erreusa murriztea da. Astakeria bat da erraustegia planteatzea, bertara doan materialen gehiengoa berreskura eta birzikla daitekeenean.



INSTRUKZIO LIBURUAK BANATU ETA TAILERRAK ANTOLATUKO DIRA ATEZ ATEKO BILKETA MARTXAN JARTZEN DENEAN.

> ## "Atez ateko bilketa Europa erdian egiten da"
>
> **N. Antzeko esperientziak martxan jarri diren lekuko zuzenetako bat zaitugu. Esperientzia horietatik zer dugu hemen ikasteko?**
>
> **J.C.** Oinarri oinarrian, egitea posible dela. Gaikako bilketa %60-80ko mailara igo daitekeela. Hori posible dela eta udalerri bakoitza gai dela atez ateko sistema bere errealitatera moldatzeko. Posible da.
>
> **N. Inguru hauetan, horrelako esperientzia bat martxan jartzen duen lehen herria izango da Usurbil. Zer aspektutan izan behar du eredugarri zure ustez?**
>
> **J.C.** Atez ateko bilketa sistema Europa erdian egiten da. Hori martxan jartzeko, hondakinen gaia aurrez aurre politikorako gaia ez baliatzea eta batasun politikoa egotea oso garrantzitsua da. Azkenean, hondakinen arazoa denona baita. Ekarpen hori egin dezake Usurbilek. Egiteko motibazioa badago.

# Begi bistarako inpaktu gutxiko errauskailua, hori da Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahia

**Foru Aldundiak argitu du, diseinuari dagokionean, zer nolako erraustegia eraiki nahi duen Zubietan. Begi bistarako ahalik eta inpaktu gutxien eragingo duen instalazioa kokatu nahi dute bertan. Hori da Garapen Jasangarriko Departamentuko arduradunek proiektua diseinatzerakoan arkitekto eta ingeniariei jarri dieten baldintza nagusia. Haien helburua, erraustegiak tximiniarik ez izatea da. Eta izango balu, eraikinetik ahalik eta gutxien gailentzea.**



PARIS, ANDORRA EDOTA LILLEN (IRUDIAN) ERAIKI DIREN ERRAUSTEGIEN EREDUAK HARTU DITUZTE KONTUAN.

Horretarako, planta barruan gasak depuratzeko sistema jarri nahi dute. Aldundikoek Paris, Andorra edota Lillen eraiki diren erraustegien ereduak hartu dituzte kontutan. Zubietako plantan egingo den hondakinen kudeaketa maila, 381.375 tonatakoa izango dela kalkulatzen dute.

## Txikitu, lehortu eta erre

Errauskailura hondakinak iritsi ahala igaroko duten prozesuaren xehetasunak ere jakinarazi dituzte. Lehenbizi, aurretratamendu planta batetik igaroko litzateke, haien bolumena txikitzeko. Hartara, Aldunditik diotenez, erraustu nahi den zaborra %30ean gutxitu nahi da.

"Biolehortze" prozesuaren bidez, hondakinen hezetasunaren zati bat lurrunduko da. Hondakinak errauskailura iritsi eta xehatu ostean, bi astez bost bat metrotako altueran pilatuko dira. Hortik ateratzen dena, gero, erraustu egingo litzateke. Prozesu horren amaieran, errautsa heltzeko planta bat izango da. Eta birziklapen eta konpostaje prozesuetatik kanpo geratzen diren soberakinak edota errautsak isurtzeko instalazioak ere izango ditu plantak.

## Kamioi bereziak eta trenak, hondakinen garraiobide

San Markosko zabortegia itxita, bertara garraiatu beharreko zaborra Azpeitiako Lapatx, Beasaingo Sasieta edota Zarautzeko Urteta hondakindegietara eramateko asmoa dago. Zaborren garraioa distantzia aldetik asko luzatuko denez eta trafiko dentsitatea ez gehitzearren, Aldundia garraiobidea nola erraztu aztertzen ari da. Bi asmo daude une honetan; Txingudiko Mankomunitatea hondakinak Beasaineraino trenez garraiatzea planteatzen ari da. Aldundian, Deba Behean ibiltzen diren kamioi berezien zerbitzua herrialde osora zabaldu edo ez aztertzen dabiltza. Aipatu ibilgailuek zaborra trinkotzen dute eta hondakinak garraiatzeko kaxa desmuntatu daiteke.

ARITZ GORRITI

# Autobus begirale bat behar da Udarregi ikastolan

Autobus begirale baten ordezkapena egingo duen pertsona baten beharra dauka Udarregi ikastolak.

Ordezkapen honetaz arduratuko den pertsonak 12:30ean ikastolatik irten eta Santuenera doan autobuseko bidaia bete beharko du. **Martxoaren 31n bertan lanean hasi beharko luke.**

Bidaiaren ezugarriak:

-12:30ean ikastolan bertan autobusa hartu, Santuenera joan, Txikierdin amaitu eta Txikierditik Usurbila Aizpurua autobusak ekarriko luke 12:50erako.

Ezinbesteko baldintza bat bada: euskara jakitea.

## Lan poltsa osatzeko asmoa

Lehentasuna izango dute ikastolako guraso direnak eta usurbildarrak direnak.

Lan honetan interesaturik bazaude edo informazio gehiago jaso nahi izanez gero, ikastolara dei ezazu lehenbailehen: 943-36 12 16 (idazkaritza).

Ikastolak jakinarazi duenez, postu honetan interesaturik daudenekin lan-poltsa bat antolatu nahi luke.

Era berean, jangelako zaintzaileen beste lan-poltsa bat ere antolatu nahi denez, batean ala bestean interesa duzuenoi dei egiten zaizue ikastolarekin harremanetan jar zaitezten.

# Udaletxe aurrean egin zen Arrasateko atentatua gaitzesteko elkarretaratzea

Arrasateko atentatua gaitzesteko elkarretaratzeak deituta zeuden larunbat eguerdian. Usurbilen, udaletxe aurrean egin zen bilkura.

Isaias Carrasco Arrasateko zinegotzi sozialista ohiaren hilketa salatzeko elkarretaratzean EA, Aralar, EAJ-PNV eta PSE-EEko udal ordezkariek hartu zuten parte. Bereziki minduta ikusi zitzaion Amaya Goyaran Usurbilgo PSE-EEko udal zinegotziari. Elkarretaratzearekin bat egin zuten hainbat herritarrek.



MARTXOAREN 8AN UALETXE AURREAN BILDUTAKO HERRITARRAK.

## Eguneko Zentroa, asteburuetan ere zabalik

Martxoaren lehenaz geroztik, astebukaeratan ere zabalik dago Eguneko Zentroa. Hala jakinarazi dute Udal Gizarte Zerbitzuek.

## Atxegaldeko jaiak antolatzeko bilera

Aurtengo festak antolatzen hasteko lehen hitzordua finkatu dute Jai Batzordekoek. Larunbat honetan, goizeko 11:00etan garai bateko auzo elkartearen egoitzan bilduko dira.




**LAB SINDIKATUAREN ELKARRETARATZEA.** Buruntzaldeko LABeko ordezkariek bilera egin zuten pasa den ostiralean Sutegin. Ondoren, euskal presoen aldeko elkarretaratzea egin zuten Bordatxo pareko errotondan.

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**
**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**
*Kale Nagusia, 2 1.C4* *20170*
*Tlf* ***943 37 08 78*** *USURBIL*



# Asteburu honetan hasiko da Usurbilgo XXXVI. Pilota Txapelketa

## Kadete, jubenil zein nagusi mailan, 80 pilotari lehiatuko dira aurten

**Aste honetan hasi eta Santixabelak iritsi arte, ia asteburu gehienetan pilota partidak ikusteko aukera izango dugu. Hiru mailatan jokatuko da –kadeteak, jubenilak eta nagusiak– eta guztira 80 izango dira partehartzaileak.**

Ligaxkako partidak asteburu honetan hasi eta maiatzaren 25era arte luzatuko dira. Final-zortzirenak, maiatzaren 30ean hasi eta ekainaren 8an amaituko dira. Final-laurdenak eta final-erdiak ekainaren erdialdean jokatuko dira. Eta azkenik, Santixabel egunean, finalak.

Andatzpe eta Peña Pagola elkarteek osatu duten Usurbilgo Pilota Elkarteak antolatu du txapelketa, Kirol Patronatoaren laguntzaz.



IRUDIAN, IAZ JOKATU ZEN TXAPELKETAKO IRABAZLEAK.

## 80 pilotarik eman dute izena baina 14 bakarrik dira usurbildarrak

**80 pilotari arituko dira lehian. Horietatik hamalau usurbildarrak izango dira. Hemen dituzue Usurbilgo Pilota Elkartearen izenean arituko diren pilotariak.**

KADETEAK
**Santxo** (Usurbil)-Santxez (Astigarraga)
**Mendizabal** (Usurbil)- Ugalde (Oiartzun)

JUBENILAK
**Esnaola** (Usurbil)- Ulanga (Andoain)
**Arruti - Egiguren** (Usurbil)
**Makazaga - Ostolaza** (Usurbil)

NAGUSIAK
**Pueitz - Katalina** (Usurbil)
**Irazustabarrena - Zinkunegi** (Usurbil)
**Santxo**(Usurbil)-E.Galarraga (Bidegoian)
**Domingez** (Usurbil)- Apezetxea (Añorga)

### Santixabel egunean jokatuko dira finalak

Txapelketa larunbat honetan hasiko da eta uztailaren 2an bukatuko da. Baina finalak baino lehen, bide luzea osatu beharko dute pilotariek:

**Ligaxkako partiduak:** martxoaren 14tik maiatzak 25a arte.
**Final-zortzirenak:** maiatzaren 30tik ekainaren 8a arte.
**Final-laurdenak:** ekainaren 13, 14 eta 15ean.
**Final-erdiak:** ekainak 20 -21.
**Finalak:** uztailaren 2an.









# "Izen-ematea murriztu egin behar izan dugu"

**Usurbilgo Pilota Elkarteko kide da Enrike Huizi. Aurten, lehen aldiz, egutegi bat osatu dute hasieratik. Partehartzea ere murriztu egin dutela adierazi digu. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkie laguntzaile guztiei, Kirol Patronatoari eta Usurbilgo Udalari.**

**NOAUA! Aurten, 80 partehartzaile izango ditu txapelketak. Akaso inoiz izan duen partehartze handiena izango al da?**

**Enrike Huizi.** Ez. Badira urteak 100 bikotek parte hartu izan dutela ere. Geroztik izen ematea murriztu egin behar izan dugu, gehiegizkoa zelako.

**N. Antolaketari dagokionez, izango al da berritasunik aurten?**

**E. H.** Bai. Aurten lehen aldiz egutegi bat egin dugu eta ez dugu partidaren datarik aldatzeko aukerarik emango.

**N. Usurbilar batzuk kanpokoa izango dute bikotea. Horrek ze esan nahidu, pilotari kopurua murriztu egin dela edo?**

**E. H.** Beti izan da horrela. Batzutan herrian ez dago, bestetan bikotea aldatzea ongi iruditu zaigu.



PILOTA TXAPELKETAKO PARTIDA DENAK USURBILEN JOKATUKO DIRA

# Hilabete honetan jokatuko diren partidak

### MARTXOAK 14 OSTIRALA
**19:00etan Usurbilen**
JUBENILAK
Segurola-Etxeberria (Zumaia)
Esnaola-Ulanga (Usurbil-Andoain)

Urbieta-Irurtzun (Alkiza)
Artetxe-Arteaga (Lasarte)

Kina-Biain (Zumarraga)
Pagola-Garmendia (Urnieta)

### MARTXOAK 15 LARUNBATA
**Goizeko 10:30ean, Usurbilen**
JUBENILAK
Arrieta-Esnaola (Hernani)
Asteasuinzarra-Araico (Zaramaga)

NAGUSIAK
Urmeneta-Aranalde (Añorga)
Albarado-Torres (Zaramaga)

Eskudero-Sagaseta (Añorga)
A.Aranburu-Landa (Lasarte)

### MARTXOAK 16 IGANDEA
**Goizeko 10:30ean, Aginagan**
NAGUSIAK
Muguruza-Herran (Bergara)
Pueitz-Katalina (Usurbil)

Santxez-Linzoain (Lakua)
Lizaso-Pebet (Villabona)

Esnal-San Sebastian (Hernani)
Irazustabarrena - Zinkunegi (Usurbil)

### MARTXOAK 28 OSTIRALA
**19:00etan Usurbilen**
KADETEAK
Aristimuño-Mujika (Alkiza)
Santxo-Santxez (Usurbil-Astigarraga)

Irastorza-Ulanga (Andoain)
Aizpitarte -Lizeaga (Hernani)

### MARTXOAK 29 LARUNBATA
**Goizeko 10:30ean Usurbilen**
KADETEAK
Etxaniz-Aizpuru (Azpeitia )
Loidi-Maiza (Añorga)

Loperena-Beola (Oiartzun)
Mendizabal-Ugalde (Usurbil- Oiartzun)

### MARTXOAK 30 IGANDEA
**Goizeko 10:30ean Usurbilen**
JUBENILAK
Lizarribar-Barberia (Bidegoien)
Arruti-Egiguren (Usurbil)

Madariaga anaiak (Txaruta)
Ugarte-Etxeberria (Andoain)

NAGUSIAK
Odriozola -Yeregi (Azpeitia)
Santxo-E.Galarraga (Usurbil-Bidegoien)






# Aste Santuan Alemaniara, Mendeku Itxuak taldekoekin batera

**Gainean ditugu Aste Santuko oporrak. Mendeku Itxua herriko musika taldeak bira egingo du Alemanian eta beraiekin batera joateko aukera eskaintzen ari dira. Mendeku Itxuak taldekoek "Astesanttour´08 on Deustchland" izenarekin bataiatu dute martxoaren 20tik 24ra antolatu duten bidaia. Tarte horretan, hiru kontzertu eskaintzekoak dira. Eta nahi duenak haiekin joan daiteke biran. Joan-etorria egiteko autobusa jarri dute.**

Bost eguneko bidaia autobusez egin eta Mendeku Itxuak Alemanian eskainiko dituen hiru kontzertuak ikusteko aukera izango da. Autobusean izena emateko honako telefono zenbakira deitu behar da: 616 482 521. Bertan norbere izen abizenak eta harremanetarako telefono zenbaki bat utzi behar dira. Behar beste lagunek izena emango ez balute, bidaia bertan behera gera liteke. Kasu horretan, erabakiaren berri emateko antolatzaileak autobusean joatekoak direnekin hartu emanetan jarriko dira.



200 EURO REN TRUKE, BIRA OSOA AUTOBUSEAN EGITEKO AUKERA DAGO.

### Astesanttour´08

**BIDAIA-EGUNAK:**
Martxoak 20-martxoak 24.

**BALDINTZA NAGUSIA:**
18 urte beteta izatea.

**PREZIOA:**
200 euro.

**IZENA EMATEKO TELEFONOA:**
616 482 521.

**MARTXOAK 20, OSTEGUNA**
Usurbil-Pirmasens (Alemania)

**MARTXOAK 21, OSTIRALA**
Pirmasens, kontzertua

**MARTXOAK 22, LARUNBATA**
Traer, kontzertua

**MARTXOAK 23, IGANDEA**
Frankfurt, kontzertua

**MARTXOAK 24, ASTELEHENA**
Frankfurt-Usurbil.

# Martxoaren 25ean amaituko da kultur egitasmoetarako dirulaguntzak eskatzeko epea

**Kultur egitasmoak antolatzeagatik dirulaguntza eskatu nahi duenak, orain du eskaera egiteko garaia. Lehengo astean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dirulaguntzak eskatzeko oinarriak. Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 25ean amaituko da** (egun hau barne).

Kultur elkarteek, bestelako kultur erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kultur ekimenak bultzatu eta sustatzeko dirulaguntza deialdia egin berri du Usurbilgo Udalak. Arautuko duten oinarriak atera ditu 2008. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Eskariak Udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira.

### Beharrezko dokumentazioa

Dirulaguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau eraman behar da Udalera:

-Dirulaguntza eskari normalizatua (I. Eranskina).

-Ekintzei buruzko fitxak (II. Eranskina).

-Eskatzailearen NANaren fotokopia.

-Identifikazio Fiskalaren Kodearen kopia (edo NANaren kopia, hala badagokio).

-Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria (III. Eranskina).

Aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, dirulaguntza eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie.

### Informazio gehiago, sarean

Dirulaguntza eskatzeko azken eguna martxoaren 25a izango da, egun hau barne. Informazio gehiago eta dirulaguntza eskatzeko agiriak honako web orrialdean aurkituko dituzue:

https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/02/18/e0801680.htm

# Verdini Dantza Taldeak “Argira” ikuskizuna eskainiko du Sutegin

**Soinurbil zikloak, aurten, dantza ikuskizunik ere ekarriko digu. Martxoaren 29an izango da hori. Ballet eta dantza klasikoari lotutako ikuskizuna eskainiko dute Verdini Dantza Taldekoek. Talde donostiar hau down sindromea duten gaztetxoez osatua dago, eta Isabel Verdini zuzendariak prestatutako koreografia eskainiko dute Sutegin.**

Isabel Verdini koreografoaren ipuin batean oinarritzen da “Argira” dantza ikuskizuna.

Verdini Dantza Taldea 1992. urtean jaio zen, adimen urriko pertsonak dantzaren bitartez integratzeko helburuarekin. Talde moduan eginiko lehen emanaldia 2000 urtean izan zen, Atzegiren 40. urteurrenean, “Gure indarra” izenekoa.

EGUNA: Martxoak 29 larunbata, 18:00ean Sutegin.



MARTXOAREN 29AN SUTEGIN ARITUKO DA VERDINI DANTZA TALDEA.

SARRERA: aldez aurretik euro 1 (kiroldegian salgai). Takilan: 2 euro.

Sutegiko plazak mugatuak dira. Sarrerak aldez aurretik erostea komeni da.

## Soinurbil Musika Zikloa, azken txanpan

VERDINI DANTZA TALDEA
**Noiz:** Martxoak 29 larunbata
**Non:** Sutegin, 18:00etan
**Sarrera:** 2 euro,
aurretik 1 (kiroldegian)

ZUMARTEKO IKASLEAK BERAN
**Noiz:** Apirilak 24 osteguna
**Non:** Berako Kultur Etxean
Zumarteko ikasleen saioa, 18:30ean.

BERAKO IKASLEAK SUTEGIN
**Noiz:** Maiatzak 21 asteazkena
**Non:** Sutegin, 18:00etan Berako ikasleen saioa.

Antolatzaileak: Zumarte Usurbilgo Musika Eskola eta Usurbilgo Udala Laguntzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartea.

## NOAUA!ren hurrengo eskaintzak

### Apirilean 3an, film laburrak Sutegin

Iaz bezala, euskarazko film laburrak ikusteko aukera berri bat izango dugu apirilaren 3an osteguna Sutegin. Saioa 20:00etan hasiko da.

### Apirilaren 17an, Katamalo Sutegin

Gotzon Barandiaranek Katamalo poema liburua kaleratu zuen azaroan. Horrekin batera, Euskal Herriko hainbat musikarik liburu horretako poema batzuk musikatu zituzten eta izen bereko CDa kaleratu zuten. Gorka Urbizu, Nerea Urbizu, Alex Arregi, Aintzina Lekue, eta Itxaso Etxebeste arituko dira apirilaren 17an osteguna Sutegin. Saioa 20:00etan hasiko da.



### Maiatzean 31n, “Ornitorrinkus”

Musika eta bertsolaritza elkartzen ditu Ornitorrinkus ikuskizunak. Judith Montero (saxo jotzailea), Xabier Erkizia (musika esperimentala) eta Maialen Lujanbioren (bertsolaria) Sutegin izango ditugu maiatzaren 31n.

ALIPROX
Kale Nagusia 10
✆ 943 361 182
USURBIL

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
✆ 943 370 008

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

# Koldo Huegun, Pierra Menta mendiko eskiko proba nagusian

**Asteburu honetan jokatuko da Frantziako Alpeetako proba ezaguna. Aurten ere euskal ordezkaritza izango da: bederatzi eskiatzaile guztira. Horien artean usurbildar bat, Koldo Huegun.**

Mendiko eskiak inon tradizioa badu, Alpeetako herrialdeetan du. Guztien artean Pierra Menta da mendiko eskiko proba nagusia, txirrindularitzan Frantziako Tourraren parekoa.

**PIERRA MENTA LASTERKETA**

Luzeena eta gogorrena da, lau egun eta 10.000 metrotik gorako desnibelarekin

Lau egunez jokatzen da, Areches-Beaufortain haranean; eskia eta alpinismoa gustukoak dituenarentzat, inguru zoragarria da. Eski estazioa Albertvilletik 30 kilometrora dago, eta Mont Blanc erraldoiak zaintzen du une oro proba. Inguruko mendiak ez dira oso garaiak -Grand Mont (2.650) da altuena-, baina aukera asko ematen dute zailtasun guztietako ibilbideak prestatzeko.

### Binakako lasterketa

Bikoteka parte hartzen dute eskiatzaileek Pierra Mentan, eta 160 talde lehiatuko dira, haien artean bederatzi euskal eskiatzaile: Joseba Ormazabal eta Xabi Capdevilla, Lander Alvarez eta Iñaki Uiarra, Fernando Monasterio eta Iban Letamendi, Igor Aranburu eta Karlos Imirizalduk eta Unai Aizpuru eta Koldo Huegun usurbildarra.

### 2.850 metroko desnibela

Berria egunkariak aurreko astean aipatzen zuenez, lasterketa aitzindarietakoa da Pierra Menta, luzeena eta gogorrena, lau egun eta 10.000 metrotik gorako desnibelarekin. Baina, gogorrena ez ezik, jendetsuena ere bada: 160 bikotek parte hartzen dute, baina mendi bazterretan milaka eta milaka ikusle biltzen dira. Hitz batean, benetako festa izaten da. Eta lau eguneko festa horretan, larunbata izaten da egun handia. Eski estazioak



BINAKA EGITEN DA PIERRA MENTAKO MENDI LASTERKETA.

igogailuak irekitzen ditu Forclazeko leporaino, eta milaka zale igotzen da eskiatzaileak animatzera. Guztiaren beharra izango dute. Grand Mont mendira bitan igoko dira, eta etapak goranzko 2.850 metroko desnibela izango du. Tartean, ia eskalatu beharreko pasarteak ere bai. Frantziako Tourreko mendiko etapa gogorren parekoa.

## Martxoaren 29ko asteburuan eski irteera

Bi aste barru, martxoaren 29ko asteburuan hain zuzen, Usurbil FT taldeak Sain Lery (Frantzia) eski estaziora antolatu duen irteera egingo da.

Goizez irtengo da autobusa eta igande arratsalde-gauean bueltatuko da. Bidaiari buruzko informazio gehiago honako posta helbidean: zubiharitzo@hotmail.com

Edota honako telefono zenbakira deituz: 653 72 80 59



MARTXOAREN 29AN ATERA ETA 30EAN BUELTATUKO DA AUTOBUSA.









# Dolo Errasti eta Maite Redondo, ezin Emakumea Pilotari Txapelketako finala irabazi

**Gutxigatik izan zen. 30-22. Hala amaitu zen Aginagan martxoaren 8an jokatu zen Emakumea Pilotari binakako txapelketako finala. Maite Redondo oriotarrarekin batera jokatu zuen Dolo Errasti aginagarrak. Ez zuten irabazterik izan, baina oso pozik dira lortutakoagatik eta gustura baita, horrelako txapelketak antolatzen dituztelako ere.**

Jokatu beharreko pilotarekin ez zuten zorte handirik izan. “Pilota oso motela aukeratu zuten aurkariek. Eta gu ez gara oso ondo moldatzen”, adierazi du Dolo Errastik. Finalaren atarian, kezkatuta zen, ia lasai jokatuko ote zuen edo ez final handia. Baina Errastiren esanetan, “oso urduri jarri nintzen”.

Txapelketa amaiera ikusten ziren hainbat herritar. Tartean, jokalarien lagun eta senitartekoak. Giro onik ez zen falta. “Partida gogorra baina polita zela zioen jendeak”, gogoratzen du Aginagakoak.

Aipatu bezala, 30-22 izan zen markagailuak adierazi zuen azken emaitza. Redondo eta Errasti bikotea bigarren geratu da Emakumea Pilotari Txapelketan. Garaileak berriz, Zabala-Fernandez. Partida bukatu bezain laster, lehia kantxan geratu zela esan daiteke. Txapelketan parte hartu duten ia jokalari guztiak ospatzera joan baitziren. Finalistak, trofeoa, txapela edota elikagai produktu sortarekin eskuetan.

**ERRASTI ETA REDONDO**

Apirila aldera Oiartzunen hasiko den txapelketan izena ematekoak dira

Aginagan jokatu den txapelketa amaituta, egiteke zuen jarduera bati helduko dio Dolo Errastik. “Nerbioak lasaitzeko gehixeago entrenatzeari ekingo diot”, adierazi du. Hartara, fisikoki hobeto prestatu egon nahi luke, beste edozein torneoetan parte hartu ahal izateko. Oraindik izena eman ez badute ere, apirila aldera Oiartzunen hasiko den beste txapelketa, jada buruan dute.




DOLO ERRASTI PALA JOKALARIA.

Parte hartzea gorantz doan neurrian, ugaritzen doaz txapelketak. Federazioa, une honetan antzeko kirol ekimen gehiago antolatu edo ez planteatzekotan da.

### Eskubaloi emaitzak

| | |
|---|---|
| 1. Territoriala | Donibane 33-Usurbil KE 23 |
| 2. Territoriala | Usurbil KE 27-Bergara 30 |
| 2. Territoriala | Leizaran 32-Usurbil KE 19 |
| Junior mut. | Leizaran 24-Usurbil KE 31 |
| Kadete mut. | Usurbil KE 48-Irurena 29 |
| Junior nes. | Usurbil KE 29-San Adrian 19 |
| Junior nes. | Usurbil KE 27-Kukullaga 25 |
| Kadete nes. | Usurbil KE 24-Urdaibai 19 |
| Kadete nes. | Usurbil KE 17-Kukullaga 28 |

# Mikel Otaegi, Durangoko duatloi proban garaile

**Baxurde Txiki kirol taldekoek estreinatu dute denboraldi berria. Emaitza ezin hobeekin gainera, Mikel Otaegik, Iñaki Añorgak eta Beñat Sagarzazuk Durangoko duatloi proban parte hartu ondoren.**

Baxurde Txiki kirol taldekoek denboraldia modu ezinhobean hasi dute. Taldeko hiru kideek pasa den martxoaren 1ean Durangon jokatu zen duatloi proban parte hartu zuten. 23 urtez azpikoen mailan, Mikel Otaegik irabazi zuen. Adin tarte horretatik gorakoen artean, Iñaki Añorgak hemeretzigarren postua eskuratu zuen eta Beñat Sagarzazuk 61.postuan amaitu zuen.

Saiora aurkeztu ziren hamabost taldeetatik, zortzigarren sailkatu zen Baxurde Txiki taldea. Parte hartze datua kontuan hatuta emaitz bikaina; 220 kirolari bildu zituen ekitaldiak. Hurrengo hitzordua Oñatin izango dute, larunbat honetan, martxoak 15.




DURANGOKO PROBAREN ATARIAN, BAXURDE TXIKIKO KIDEAK IRUDIAN.

## Agenda !!

### Martxoak 12 asteazkena
**IT txartela lortzeko azterketa eguna,** KzGunean. 18:00-20:00. 943 36 14 12.

### Martxoak 14 ostirala
- **KzGunea ikastaroa: justizia ezagutu ezazu.** 18:00-19:00.
- **KzGuneko ikastaroak: foroak eta laguntzak** 19:00-20:00. 943 36 14 12.
- **"Xomorroen dantzak"**, 18:30ean Sutegin, Santueneko Antzerki Tailerreko bi taldeen eskutik (Inauterietarako prestatu zituzten dantzak eskainiko dituzte).

### Martxoak 27 osteguna
**KzGunea ikastaroa: Sinadura elektronikoa,** KzGunean. 18:00etatik 20:00etara. Kale Nagusia 37, Usurbil. 943 36 14 12.

### Martxoak 28 ostirala
**KzGunea, IT txartela lortzeko azterketa eguna** 16:00etatik 18:00etara.
**KzGunea ikastaroa: Eustat.** 18:00etatik 20:00etara. 943 36 14 12.

### Martxoak 29 larunbata
**Verdini dantza taldea,** "Argira" ikuskizuna. 18:00etan Sutegin. Sarrerak, aldez aurretik, euro 1 (kiroldegian). Takilan, 2 euro.

# "Kalamidadeak", Morau kantariaren disko berriena

Txukalda diskoan (2004) hasitako bidetik omen dator "Kalamidadeak", Andoni Tolosa **Morau kantari hernaniarrak aurkeztu berri duen diskoa. Azken urteotan, Agotak taldearekin aritu da zuzenean eta baita estudioko lanean ere. Jexux Agirresarobe usurbildarra Agotak taldeko baxujolea da eta azken disko honetan ekoizle lanetan ere aritu da.**



JEXUX AGIRRESAROBE (ESKUBIAN) ARITU DA EKOIZLE LANETAN.

Antza denez, lehen aldiz taldean pentsatuz sortu ditu kantuak Morau bakarlariak. Hortaz, "songwriter" ildoko baladak eta doinu akustikoak murriztu dira eta rock&rollaren arintasuna eta indarra nagusitu dira.

Kantuetan islaturiko gaiek bestela pentsarazi badezakete ere, "Kalamidadiak" ez da disko goibela edo tristea. Kantu zuzenak, melodikoak, bizipozak kutsatutakoak eta gogoan iltzaturik geratzen direnak eskaintzen dizkigu Morauk.

Morauk kronista sozialaren zereginarekin lotzen den kantu egilea deritzo bere buruari, begiak inguratzen gaituen errealitatean pausaturik haren gaineko ikuspegia eskaintzen duena, garaian garaiko gizartearen testigantza eskaintzeko eta geure buruari eragiteko kantuak betidanik izan duen funtzioari eusten diona. Arrazoi politikoak eta arrazoi poetikoak uztartzen dituena.

Soinu biluzi, garden eta apaingarri gutxikoari eutsi dio taldeak, ahots moldaketak eta gitarren joko melodikoak bereziki zainduz. Patxadaz egindako diskoa da, eta patxadaz gozatzekoa.

### Diapositiba emanaldia AEK euskaltegian

Ostegun honetan, hilak 13, AEK Etumeta Euskaltegian (Kale Nagusia, 43) diapositiba emanaldia, Aitor Atxagaren eskutik. Kamerunera eginiko bidaiaren berri emango du, arratsaldeko 19:30etik aurrera. Sarrera doan eta herritar denentzat irekia.

### Apirilaren 2an, Kultur Aholku Batzordearen hurrengo bilera

Otsailaren 27an bildu zen Kultura Aholku Batzordea. Datorren bilera martxoaren 26an asteazkena egin beharko litzateke. Baina Pazko Astea denez, apirilaren 2an bilduko da Kultura Aholku Batzordea.

### Aste Santuan NOAUA! astekariak jai

Aste Santua izango da datorrena. Ohi bezala, ez dugu NOAUA! astekaria plazaratuko, ez Aste Santuan ezta Pazko Astean. Datorren alea, beraz, apirilaren 4ko datarekin argitaratuko dugu. Bien bitartean, martxan izango da noaua.com webgunea.






### Etxebizitza

- Etxe bat alokatuko nuke norbaitekin. Usurbilen, 639370633 (Bixen)
- Terrenoa duen borda bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 664774024
- Terrenoa daukan baserri bat erosiko nuke. 664774024
-75.000 metro karratuko terrenoa daukan baserri bat daukat salgai. Argi indarra telefonoa eta ura ditu. Agroturismo bat jartzeko oso egokia. 664774024.
- Etxe bat alokatuko nuke norbaitekin Usurbilen, 639370633 (Bixen).
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
-Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berritua. 53.000.000 pezeta. 696 693 710.
-Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Hiru logelatako etxe baten bila gabiltza Usurbilen. Agentziarik ez. 616064059.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 33 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- 3 logeletako etxe bat salgai, kaxkoan. Igogailua, ganbara eta balkoiduna. 655 72 06 66.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trasteroarekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil. 687 650 066 (Maria).

### Salerosketak / garajeak

-Usurbilen33 metro karratutako garaje bat alokatzen dut. Sarrera handiarekin, biltegi moduan erabiltzeko egokia izan daiteke. Ura eta argia dauzka. 943373481.
- Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen dugu. Kotxeak sartzeko egokia, lokal moduan ez dugu alokatzen. 85 euro hilabetean. Interesatuak deitu 943361235 telefonora.
- Volswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Land Rover 4.6 (lp) todoterrenoa salgai. 8 urte. 455.000 km. Extra asko. Ruben. 609408401.
-Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajean egondakoa. 620625823.
- Mercedes Vito Mixta 112 CDI bat saltzen dut. Dena hornitua, 610 431 999.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

### Lanpostuak

**Lan-eskaintzak**

- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Ordutegian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
-Neska euskaldun (ahal bada) baten bila gabiltza ume bat zaintzeko astean bi goizetan eta zenbait arratsaldetan. 635715142.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabiltza. 943366710.

**Lan-eskaerak**

- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
-Etxekolanak egiteko, umeak edo pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Esperientziduna, informeak dauzka. Interesatuak deitu 943834895 / 650814429
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 636934237.
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldez lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 675 657 780.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporrak, ospakizunak, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

### Bestelakoak / Galdutakoak

- Martxoak 9an Usurbilgo frontoian xira txuri-gorri bat galdu dut. Aurkitu baduzu: 943130036.
- Antzerki txikia egitera etorriko zarenari. Ostegunean 20:30 elkartu gaitezke, baina, beste toki batean hitz egingo dugu. 943 36 03 21
- Otsailak 24an Igeldoko inguruan Pastor Aleman eme gazte bat galdu dugu. Bikote batek hartu zuela uste dugu. Txipa eta indentifikazio plaka ere badauka. 943210330.
- Gizon edo emakume baten bila nabil, apirilean antzerki txiki bat egiteko. Interesatuak deitu 94360321 telefonora.
-Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatako beltz batekin. Aurkitu badituzu: 685 72 56 81.
-Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 110 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net

## Hildakoak



**Pilar Iruretagoiena Eizagirre.**
Martxoaren 8an hil zen 88 urte zituela. Zubieta.

## Jaiotakoak

**- Olatz Borda Beristain**
Otsailaren 29an.
**- Sara eta Maitane Arantzazistroki Makazaga**
Martxoaren 2an.

**Oharra:** *Jaiotzak*, Bake Epaitegitik jasotako datuak. Hildakoen edota jaioberrien aipamenak... iragarri nahi badituzu, e-posta bidali: erredakzioa@noaua.com



**Zorionak Uxue!**
Martxoaren 6an egin duzu zure lehenengo urtebetetzea eta etxeko guztiok gogoratu nahi izan dugu hau. Zorionak eta muxu potolo bat!



**Zorionak Mari Mar eta Elene!**
Biak egingo dituzue urteak martxoaren 15ean! Zorionak bioi eta muxu potolo bana familia guztiaren partez.





**Zorionak Garazi!**
Martxoaren 13an egingo dituzu 3 urte. Zorionak eta marrubizko muxu potoloak famili guztiaren partez.



**Zorionak Eneko!**
Martxoaren 13an izango da zure hamargarren urtebetetzea. Muxu pila bat etxekoen partez.



**Zorionak Maria!**
Martxoaren 19an egingo ditu gure etxeko Printzesak 5 urte. Zorionak Nora eta gurasoen partez. Ondo ondo pasa zure egunean!!



**Zorionak Xabi!**
Usurbilgo hire lagunen partez muxu handi bat. Martxoaren 17an ikusiko gaituk belarritik tira behar diagula ta e! Animo ta eutsi! Hirekin gatxaudek. Muxu handi bat hiri ta Olatzi!

# TXOTX!!


AIALDE BERRI
Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenea


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867


SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81


ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
DOLARE-SAGARDOTEGIA
Egunero irekia.
info@agroturismoarratzain.com
Arratzainzar Baserria • Telf: 943 36 66 63


943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


Aginaga
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com

# UDARREGI IKASTOLA

PARTAIDE IKASTOLAK

- 2 urtetik 16 urtera bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Euskal Curriculumaren garapenaz arduratua.
- Balore eta jarreren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Eleanitza: D eredua; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera, Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza-gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzuezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, bertsogintza, dantza.







## Matrikulatzeko epea

Martxoaren 31tik apirilaren 11ra

**943 361 216**

**Udarregi Ikastola**
Gernika ibilbidea. USURBIL
www.udarregi.com
www.udarregi.mundua.com